

Antolakuntza ponentzia

Lehen zirriborroa

Antolakuntza eredua: parte hartzea, eraginkortasuna eta berrikuntza

1.- Sarrera — Balantzea

- Lurralde egitura
- Sektore egitura
- Zuzendaritza egitura
- Arlo eta gabinetek

2.- Antolakuntza eredua eguneratzeko proposamena

- 2.1.- Hausnarketa edo oinarri orokorrak
- 2.2.- Militantzia sindikatuan
- 2.3.- Lurralde-sektore egitura
- 2.4.- Arloak
- 2.5.- Formazioa eta eraginkortasuna militantziaren lanean
- 2.6.- Hizkuntza normalkuntza sindikatuan.
- 2.6.- Lan metodoak.

3.- Lurralde egitura.

- 3.1.- Hausnarketa orokorra
- 3.2.- Eskualdeko Idazkaritza
- 3.3.- Eskualdeko Batzarra
- 3.4.- Eskualdeko Kontseilua
- 3.5.- Sindikatuaren komarkalizazioa
- 3.6.- Herri Biltzarra
- 3.7.- Sail sindikalak
- 3.8.- Sektore egitura eskualdean
- 3.9.- Delegatuen batzarrak



DOKUMENTAZIO
ZENTROA

TXT 20185

4.- Sektore egitura

- 4.1.- Gogoeta orokorrak**
- 4.2.- Sektoreko Exekutiboa**
- 4.3.- Sektoreko nazio egitura**
- 4.4.- Sektoreko Nazio Batzarra**
- 4.5.- Azpi sektore egitura**
- 4.6.- Sektore edo azpisektoreko delegatuen batzarra.**
- 4.7.- Sektore arteko batuketa**

5.- Eredu sindikal eta organizatiboaren mesedetan dagoen zuzendaritza egitura

- 5.1.- Nazio Biltzarra**
- 5.2.- Nazio Komitea**
- 5.3.- Komite Exekutiboa**
- 5.4.- Ekintza Sindikaleko Batzordea**
- 5.5.- LHEE eta EGES garatzeko batzordea.**
- 5.5.- Ekintza Sindikaleko Kontseilua.**
- 5.6.- Antolakuntza batzordea.**

6.- Idazkaritzak

- 6.1.- Idazkaritza tekniko ekonomikoa**
- 6.2.- Emakumearen Idazkaritza**
- 6.3.- Idazkaritza juridikoa — informeak**
- 6.4.- Gazteriaren Idazkaritza**
- 6.5.- Lan osasuna eta inguru giroaren idazkaritza**

7.- Aztolakuntzazko eredia eta esparru berriak: pentsionistak, ekonomia soziala eta autonomoak, etorkinak

- 7.1.- Pentsionistak**
- 7.2.- Ekonomia soziala**
- 7.3.- Langile autonomoak**

8.- Batzorde bereziak

- 8.1.- Berme batzordea.**
- 8.2.- Finantza batzordea.**

ANTOLAKUNTZA EREDUA: PARTE HARTZEA, ERAGINKORTASUNA, BERRIKUNTZA

1.- Balantzea

1) Azken Biltzar Nagusian zehaztutako antolakuntzazko ereduari buruzko balantze orokorra ez da gustukoa izan, jarritako helburu eta aurre-ikuspenetatik urrun dagoelarik.

2) Afiliazioaren eta ordezkartzaren bilakaerak balantze positiboa dauka kongresu arteko ziklo honetan, desorekak egon arren sektore eta lurraldeen artean. Sindikatuak ia 35.000 afiliatuekin hasten du 2004ko urtea, eta gure ordezkartza sindikala, lehen aldiz Euskal Herri osoan zehar hedatzeaz gain, goruntz doa; horrela, 2004ko urtarrilean 4000 delegatu inguru izango ditugu, lantokietan.

3) Biltzar Nagusiaren osteko lehen bi urteetan erakunde bizitako egoerak eta hauteskunde sindikaletako prozesu kontzentratuak ez dute antolakuntzazko plangintza erasokorrik egiteko aukerarik eman, zuloak tapatzen edo arazoei ikuspegi motzeko eskemekin erantzuten aritu garelarik une oro. Horrela bada, erakundea eta bertako koadroen plangintzen bidezko hobekuntza lanetan egin ahaleginak (prestakuntza ideologikoa eta lan metodoak) ez dira behar adinakoak izan.

4) Ezker politiko eta sozialeko sektoreetan eragiten duten antolakuntzazko atzera pausoek LAB bezalako sindikatu batean igartzen dira baita ere, zeinak esku hartze sindikal eta soziopolitikoan fronte asko biltzen dituen. Ez gaude jario positiboetako garaletan delegatu eta afiliatuen parte hartzeari dagokionez, ezta orokorrean erakunde sindikal eta sozial guztietan ere; ahalegin eta bitarteko handiak behar dira sindikatua mugitzeko. Sindikatuko egituren garapen horizontal ezegoki horretan eragiten duen faktorea da, era berean, Ezker Abertzaleak bizi duen egoera orokorra (erasoak, jazarpen politikoa, zalantzak...).

5) V. Biltzar Nagusian onestutako antolakuntzazko ereduaren apustu egokia zen teorian (izaera integraleko lurralde eta sektore egiturak, bi egiturak bateratzeko egiturak nazio eta eskualde mailan, sektoreen indartzea...) sindikatuaren hazkundeari eta zehaztutako esku hartze ildoari aurre egiteko.

6) Gure eredu sindikala aktibatze ardatza diren heinean, sail sindikalak bultzatu arren eta beraien parte hartze zein integrazio handiagoan bila, oinarrira hurbiltzeko ereduaren helburua ez da bete; beharrezkoa delarik egituren inbrikazioari eta erakundearen oinarrietara begirako lan bitartekoei buruzko hausnarketa eta egokitzapenak egitea.

7) Garatutako funtzionamenduak eta barne lanerako bitartekoek barne zurruntasuna sortu dute erakundearen, baita lurralde eta sektore mailan sindikatuaren hedapen horizontalean eragin txarrak dituen iherarkizaziorako joerak ere.

8) Egituren formazioa eta elikatze ideologikoa ez da modu eta bitarteko egonkorrekin bideratu, muga handiko inizatibak burutu direlarik ez bai zeuden alde aurretik prestakuntza maila eta motaren arabera plangintzatuak.

Lurralde egitura

- 1) Fase oso garrantzitsua bete da sindikatuaren antolakuntza eta esku hartzearen garapenean Ipar Euskal Herrian. "Hutsetik" abiatzen garen eskualde bateko muga logikoekin, eta krisian dauden enpresa zerrendak eta erreformak sozialak medio, azken hilabeteetan nahiko aktiboa egon den mugimendu sindikal frantses batekin (CGT, CFDT, FO, SU...), hasierako antolakuntzako sustraiak jarri ditu LABek, "prud'hommes" tako hauteskunderetan ordezkartzeko arrakasta lortu du eta erreferentzi berri batean bihurtu da langileentzat.
- 2) Azken Biltzar Nagusian planteatu komarkalizazioa egokia zen, bere baitan sektore ardurak, Herri Biltzarrak, arloak... uztartzen dituen egiturak ahalbidetuz eta dagokien esparruan erakundea dinamizatzeko gaitasun politiko eta sindikala duten egiturak finkatzea bultzatuz. Herrialdeko egiturak desagertzeak eta eskualde garapenak aukera ematen dute erakundearen oinarria zuzendaritzara gehiago hurbiltzeko, baina erakundearen oinarriari begira, herri biltzar edo sektoreen bidez eskualdeko egiturak izan bilakaera eskasak, antolakuntzako apustuaren eraginkortasun baldintzatzen du.
- 3) Desoreka esanguratsua dago lurralde egituraren garapen kuantitatiboaren eta bere gaitasunaren artean eskualdeko zuzendaritza eta plangintza eraginkortasunez jorratzeko. Garapen kuantitatiboak, sindikatuaren ekarpen handiagoarekin bitartekoetan, ez du parekorik izan eskualdeko egituren gaitasun eta heldutasun politiko sindikalaren hazkundera; perfil soziopolitiko propioaren gabezi nabarmenarekin (nazio izaeraz sortzen denaz gain) eta arazo sindikalen aurrean erantzunezko dinamika finkatu izanarekin (defentsazko dinamika).
- 4) Eskualdeko jarduera Idazkarietan edo egon daitezkeen liberatu edo erdi liberatuetan metatu izanak egituraren benetako funtzionamendua pitzatzen du, sindikatuaren dinamiketan eragin kateatua sortuz herri eta enpresei begira: eztabaidetan, ekarpenetan, inizatibetan..., erakundea asko JERARKIZATZEN duen eta ANTOLAKUNTZAZKO ESPARRU HORIZONTALAK sendotzen ez dituen joera baten aurrean gaude.
- 5) Lanerako eta plangintzak egiteko gaitasun gabezi honek sail sindikalekin komunikazioa eta harremana edukitzeko bitartekoetan eragiten du. Eskualde askotan bitarteko operatiboa delegatuen batzarra da, antolakuntzako bertikalismoa sendotzen duena, eta askotan eraginkorra izan arren, oso pobrea dena egituren garapenean eta benetako parte hartzean erakundearen.
- 6) Baldintza hauetan, bultzatzen ari den giza berrikuntzak ez du inguru egokirik ezagupenaren esperientziaren transmisioa militantzia berriaren indar eta grinarekin elkartzeko.
- 7) Eginkizun sindikal eta soziopolitikoetan eskualdeko egiturak izan garapen murriztak Herri Biltzarren garapena baldintzatu du, baita, ondorioz, sail sindikalekin komunikazio hartu eman iraunkorra egotea ere. Ildo honetan esan, ez dela landu ordezkari sindikalaren zeregina lurralde egiturarekiko (herri biltzarrak edota eskualdeak).

Sektore egitura

1) Azken Biltzar Nagusian sektorializazioan planteatutako jauzi handia ez da behar bezala gestionatzen, lurralde egiturei begirako (nazio zein eskualdeko) ekarpen horizontal egonkor eta eraginkorrean gauzatzen ez den sektoreko "erraldoikeria" sortuaz (ahalegin eta energia handiko sektore biltzarrak).

2) Sektore garapenaren bultzadak industri eta zerbitzu esparruetan (funtsezko berrikuntza biltzarretako erabakietan) ez du isla erabakiorrik eduki ekintza sindikal eta soziopolitikoaren dinamizazioan erakundearen oinarrizko egituraren (sail sindikalak). Giza bitartekoak atal estanko txikietan sakabanatzea (azpi sektoreko ardura espezifikoak) eta eskualde mailako erronka organizatibo, sindikal zein soziopolitikoekin lotura eskasa edukitzea Biltzar Nagusi honetan zuzendu behar dugun joeretako bat izan da.

3) Sektore egiturak ez du modu naturalez eta jarduera guztietan egitura integrala izatea lortzen. Hau da, joera bat mantentzen da non politikoa lurralde egitura den eta sektore esparrua soilik ekintza sindikalerako kokatzen den. Bere "integraltasuna" Nazio Komiteak eztabaidaren bat ireki edo hausnarketa edo balantze baten bat bultzatzen duenean ikusten da soilik, baina ez da lortu sektore egitura Biltzar Nagusian planteatutako eginkizunetan kokatzea. Hutsune honek antolakuntzazko eredu guztian eragiten du.

4) Sektore egitura (industri arloko sektore berriak batik bat) arazoei erantzutera mugatu da (gatazkak eta negoziazio kolektiboa), zailtasunak dituelarik gure erakundearen izaera soziopolitikoaren arabera, eta ekintza sindikalerako sindikatuaren hizpideen arabera esku hartze sektoriala antolatzen. Izaera soziopolitiko horretan erabakiorra den sektore politikei buruzko hausnarketa eta proposamen gaitasuna ez du behar bezalako bultzadarik izan, ez barne mailan, ez eta langileriarri eta jendarteari begirako gure esku hartzean ere.

Zuzendaritza egitura

1) Muga eta egindako hausnarketan eraginak hor egonda ere, ezarritako zuzendaritzaren diseinua eta eredia orekatua eta egokia izan da erakunde guztiaren funtzionamendurako.

2) Nazio Biltzarra berpizten ari da, indarberritzeko maiztasun eta edukiak dituen organoa den heinean kokatuaz eta azken Biltzar Nagusia bitarte gertatutako balio galtzea gaindituaz. Hausnarketa honek ez du bertako kideen ekarpen eta protagonismoa aberasteko lan metodologiaren beharra gutxiesten.

3) Nazio Komiteak dimentsionamendu eta osaketa egokia izan du, egitura berria izatearen zailtasunak nabaritzen badira ere, honelako esparruetan esperientziarik ez duten militante askoren presentziarekin. Hala eta guztiz ere, baldintzak sortu dira etorkizunean Nazio Komitea erreferentzia bat izan dadin hausnarketa, eztabaidatan... oraingoa baino askoz indartsuagoa eta sindikatuko benetako zuzendaritza poloa..

4) Exekutiboak ongi bideratu ditu sindikatuaren erabaki nagusiak testuinguru politiko eta sindikalaren harira, baina zailtasun asko erakutsi ditu gure ekintza sindikalak eta antolakuntzazko ereduak behar dituen birmoldaketak gidatu eta bultzatzeko.

5) Exekutiboan egon diren eginkizunak ez dira egokiak izan, Euskal Herrian bizi den prozesu politikoaren egungo fasean, LABek behar duen hausnarketa politiko eta dinamizazio sindikal eta sozioekonomikorako gaitasuna emateko exekutiboari. Honi talde lanean aritu ez izana, ez egokiak izan diren lan mekanismoak eta gainontzeko egiturekin behar adinako komunikaziorik eduki ez izana gehitu zaio, gai sindikal eta sozioekonomikoetan, barne mailako aitzindaritza hutsune esanguratsua sortuz.

Arloak eta Gabinetek

1) Bere garapenean, bi arloek fase bat agortu dute erakundean, bakoitza bere esparruan, eta beharrezkoa delarik ezaugarri eta etorkizuneko bilakaerari buruzko hausnarketa.

2) Langabezia murriztearekin eta gazteriaren presentzia masiboarekin enpresetan, lan merkatuko aldaketek eragina izan dute azken biltzarretik hona LAB Gazteak.ek eduki bilakaeran. Gazte taldeak osatzearen fasea eta gero, zeinak dinamika eta esku hartze propioa zuten eta era berean, gazteriaren arazoei begirako LABen konpromisoetan eragiten zuten, LAB Gazteak erreferentzia bat izatera pasa da, barne mailako pizgarri gisa, enpresetan sartzen diren gazteen kezkek monopolizatzen dituen prekaritatearen kontrako borroka erakundean bultzatzeko.

3) Ezker abertzaleko beste gazte erakunde batzuekin adostutako plan estrategikoa lan bateraturako erreferentzia da, eta bereziki, erakundeen arteko joan etorriaren indartze naturalerako bitarteko nagusia izan behar du ezker abertzalearen baitan.

4) LAB Gaztearen bilakaera honekin, delegatu eta afiliatu gisa gazte askoren sindikaturako hurbiltzearekin batera, behartuak gaude erakundean gazteriaren bestelako kokapen eta aktibazioa egitera. Ez du zentzurik fase honetan gazteria izaera estankoa duten egitura edo esparruetan antolatzea, aitzitik, sindikatuko gazteak erakundearen egitura eta lan ildoetan dinamizatzea da gakoa. Etorkizunean gazte idazkaritza bat kokatu beharko litzateke, baina gazteak sindikatuko jarduera eta egituretan aktibatzea bultzatzeko eta ez arlo espezifiko bezala.

5) LAB Emakumeak arloak bilakaera eta erreferentzia nabarmena izan du sindikaturen jardueran, zailtasun edo bitartekoen gabeziaren gaintik. Aukera Berdintasunerako Plana martxan jarri izana ekarpen handia izan da genero diskriminazioaren kontrako borrokan praktika egokia egiteko, eta aitzindaritza zehaztu du euskal mugimendu sindikal osoan.

6) Aukera Berdintasunerako Planak erakundeko egituretan izango duen bilakaerak zuzenduko du LAB Emakumeak.en bilakaera, begi bistakoa delarik oraindik orain arlo edo esparru espezifiko bezala mantendu eta bultzatu behar dela lanerako, koordinaziorako... ABP behar bezala aplikatzearen helburuan.

7) Lan Osasuneko gabinetek garapen handia izan du gai honetako proposamen eta militantziaren aktibaziorako gaitasunean. Erakundeko egitura teknikoak positiboki

bilakatu da eta gure ekintza sindikalean nabarmentzen diren hausnarketak ponentzia politiko sindikalean egiten diren hausnarketa autokritikoekin lotuak daude.

8) EUSLAB proiektuak hainbat fase agortzen ari ditu bere garapenean, orokorrean baikorra den balantzearekin. Lan eta esku hartzerako SINEUS ardatzean, sindikatuak euskararen normalkuntzan sakontzen jarraitzen du egitura eta barne funtzionamenduan; eta LANEUSeri buruz, urrats batzuk eman ditugu lan esparruaren euskalduntzean. Sindikalgintzan, beste erakunde sindikalen jarreretan geroz eta eragin gahiago dituen aitzindaritzazuzentzen du LABek.

9) Langile autonomo, jubilatu eta pentsionistek sindikatuan antolatzea zintzilik dugun ikasgaia da oraindik, behin betikoz, Biltzar Nagusi honetan arduren definizioa eduki behar duelarik, baita ondoriozko lan plana martxan jartzea ere.

10) Ekonomia sozialaren esparruan, bai ideologi mailan bai erakundetze eta esku hartzean ere, sindikatuaren hedapenari buruzko balantzea oso ezkorra da berriro ere. Euskal Herrian sektore honen garrantzia hor egon arren, eta enpresa kooperatiboetan ezker abertzaleko gizon eta emakumeen presentzia handia bada ere, ez gara gai hausnarketa espezifikoko bat eta antolakuntza eta esku hartze eredu bat eskaintzeko.

11) Hezkuntzak eta Ipar Hegoa Fundazioaren garapenak krisi handia bizi dute nortasun eta plangintzan, berbideratzea eginkizunetako bat delarik antolakuntzazko ereduaren eraginkortasuna hobetze bidean. Maila ideologikoan koadro guztien prestakuntza iraunkorra oinarritzkoa da eginkizun eta esku hartze ildoan garapen egoki baterako.

12) Sindikaturen gestio ekonomikoak bilakaera positiboa izan du kontrol eta plangintza mailan, berma bat delarik sindikatuak duen sarrera eta gastu kopuruarekin. Gestio ekonomikoaren eraginkortasunean urrats berriak emateko baldintzetan gauden.

13) Erakundearen funtzionamenduan teknologia berrien erabilpenak faseak agortu ditu baina pixkanaka gaindituz joan behar garen erabilpen gutxiegi batekin.

14) Afiliazio eta ordezkartze sindikatuaren hedapena eskas gestionatu dugun gaia da, kolpeka funtzionatu dugu, eta inolako plangintzarik gabe. Eskualdeko hedapenerako ardurak jarri ez izanari, datu, helburu eta kanpaina espezifikotan gestio egokia ez egiteak sortutako arazoak gehitu behar dizkiogu.

2.- Antolakuntzazko eredia eguneratzeko proposamen bat.-

2.1.- Hausnarketa edo oinarri orokorrak.

1. LABen antolakuntza eredia erabat lotuta dago bultzatu nahi dugun ezaugarritze eta eredu sindikalarekin.

2. Langile klase osoan eragiteko aldaketa politiko eta sozialerako prozesuaren parte den konfrontaziozko sindikalgintzaren goreneko aktiboa militantzia eta afiliazioa. Militantzi hori, afiliazioa, zehaztu ditugun helburuen inguruko sentimendu kolektiboaz bustitzea da gure proiektuaren garapenerako berme hoberena.

3. Militantzia eta afiliazioaren parte hartzerako beharrezkoak dira eskema jerarkiko eta burokratizatuetatik urrun egon behar diren egitura, ardurak...; gure oinarri sozialarekin komunikazioak eta elkar harremanak duten garrantziaz jabetu behar direnak era berean, hau baita parte hartze eta aktibazio maila handiagoetarako aurreko urratsa.

4. Afiliazioarekin komunikazioa, sail sindikalen aktibazioa, egituren garapen horizontala, sindikatuko arduradun guztien helburu zentrala bezala kokatu behar dira.

5. Sindikatuaren organigramak (lurreko egiturak, sektoretakoak, arloak...) ezin du oinarritzko aurrekari bat baldintzatu: LAB sindikatu konfederala da.

6. Enpresetako eguneroko esku hartzean sindikalgintza erasokorra egiteko, proposamen eta jarduera ekonomiko eta sozialean erreferentzia izango dena, beharrezkoak dira barne mailako lan bitarteko eraginkorrak (plangintza, lanaren antolakuntza...) boluntarismoz eta kanpa ismoz jositako dinamikak gaindituaz.

2.2.- Militantzia sindikatuan.

1) LAB koadro eta masazko erakunde bat da, proiektuaren garapenerako aktibo nagusia bere giza militantzia duena. Proiektu sindikal honekiko harremanetan, bertako gizon eta emakumeontzat militantzia da gure nortasun ikurra.

2) LABen bilakaerak sortu dituen behar teknikoak ez dute oinarritzko ezaugarri hau moldatu, ezta bertatik lan eta jarrera estilo bat sortuaz, moldatu behar ere.

3) LABeko militanteak erreferentzia eta adibidea izan behar dira langileen artean, ezker abertzaleko jarduera politikoetan konpromezuak bereganatuz eta elkertasuna bultzatuz bestelako dinamika eta eskakizun sozialekin.

4) Ardurak definitzeak ez du militanteen jarduera eta ekarpena ataletan mugatu behar erakundearen baitan. Guztiak gara LABeko militanteak erronka sindikal eta soziopolitikoei orokortasunean aurre egiteko, norberak bere eginkizun espezifikoak eduki arren. Ardura zehatzen arabera kezka eta ekarpenak zatikatzeko dagoen joera gainditu beharra dago.

5) Sindikatu liberatu guztiak dira ezarritako behar eta erronken arabera hartzen diren erabakien menpe dauden militanteak.

6) Erakundearen tamaina dela eta beharrezkoa da sindikatuarekin liberatuek duten harremanaren hainbat gai zehatz arautuko duen barne araudia edukitzea, nola hala, harremanak, eskubideak...

2.3.- Lurreko sektoreko egitura.

1. Sindikatuak bi egituraz hornitzen da (sektore eta lurreko sektorea), elkar elikatu behar direnak eta paraleloan zatitzea ekidin behar dutenak. Oinarritzkoa den erreferentzia honetatik, lurreko sektoreko egitura da sindikatuaren esku hartzearen tratamendu eta garapenerako esparru zentrala.

2. Sektore egituraren helburu nagusia ekintza sindikala, negoziazio kolektiboa, sektore politikak, sindikatuaren hedapena... dinamizatzea da, bere esparruan, sail sindikalak

bitarte. Erakundearen integritasuna bi esparruetatik garatzen da sektore egiturari: batetik, sektoreko nazio egiturak (sektoreko exektiboa) sindikatuaren zuzendaritzan parte hartzen du, Nazio Komitean egonaz eta ohizko ekarpena eginaz; eta bestetik, eskualdeko sektore arduradunak eskualdeko idazkaritzetan daude.

3. Lurralde-sektoreko horizontalizazioa Nazio Zuzendaritza mailan (lurraldeko eta sektoreko idazkariak) eta Eskualdeko Zuzendaritzetan (Herri Biltzarrak eta sektoreko arduradunak) ematen da. Bi esparru horietan ematen dira sindikatuak garatzen dituen eztabaida eta ekarpenak.

4. Nazio Zuzendaritzako kide diren lurralde eta sektoreko idazkari guztiak Biltzar Nagusian hautatuko dira eta ostean (bi hilabetetan gehienez) dagokien egiturek berretsiko dituzte. Bestelako proposamenik balego, Nazio Biltzar bat litzateke ardurak hauek behin betikoz erabakiko lituzkeen organoa.

5. Gure antolakuntza ereduaren lehentasunezko gaia da Eskualdeko Idazkaritzaren funtzionamendua eta plangintzak egiteko gaitasuna egonkortzea. Sektoreko eskualde arduradunak eta Herri Biltzarreko arduradunak bertan finkatzeak sail sindikalekin komunikazio egonkorra bultzatzeko aukerak eman behar ditu, baita lantoki eta jendartean sindikalizazioa erasokorra aktibatzeke ere.

6. Sektoreko Nazio Batzarrak edo Biltzar Nagusiak, Biltzar Nagusiak definitutako norabideak garatuko dituzte antolakuntza eta esku hartze sindikal eta sozioekonomiko mailan.

2.4.- Arloak.

1. Sindikatuak nazio izaerako idazkaritzak edukiko ditu (emakumeak, gazteak, lan osasuna eta ekonomikoa) gure jardura sindikal eta soziopolitikoan zehar lerrokoak diren eraginkizun eta gaiei erantzuteko helburuarekin.

2. Gizon eta emakumeen berdintasunaren aldeko borroka, erakundearen zein lan munduan; sistema ekonomikoa dela eta euskal gazteriak bizi duen egoera espezifikoa araberako esku hartze sindikalak; aldarrikapen hauek lurralde eta sektore egituretan zehar lerroko proiektzioa edukitzea egiten dute.

3. Zehaztu ohi ditugun helburuen arabera, Aukera Berdintasunerako Planaren ezarriak daudenak, LAB Emakumeak Arlo edo Idazkaritza izaerarekin jarraituko du, presentzia zuzenarekin Zuzendaritzan, eta antolakuntzazko proiektzioarekin sektore eta lurralde mailatan.

4. LAB Gazteak nazio mailako arlo edo idazkaritza izaera mantenduko du, baina ez du helburu izango sindikatuko egituretan antolakuntzazko garapenik izatea. Hori bai, Idazkaritza nazionalak militante gazteei zuzendutako lan bitarteko eta ekimenak bultzatuko ditu barne eta kanpo mailan beraien ekarpenen modu positiboan eragiteko asmoz. Sindikatuan dauden gazteak LABeko militanteak diren heinean eragin behar dute beren inguruan, ez LABeko gazteak bailiran.

2.5.- Formazioa eta eraginkortasuna militantziaren lanean.

1. Sindikatuak Prestakuntzarako eta Ipar Hegoaren beraktibaziorako premiazko plana finkatu behar du. Beharrezkoa da koadroen eskolarako oinarriak jartzea.
2. Prestakuntza ideologiko eta sindikala erakundeko esparru guztietara iritsi behar da, eta horretarako maila bakoitzean egokia den metodo eta formatoak erabiliko dira.
3. Ezinbestekoa da, gai edo materialetan kalitatezkoa izango den barne komunikazio sistema integratzea prestakuntza plan edo dinamikan. Sindikatuko koadro eta arduradunen eguneratze eta elikadura ideologikoa ardura konfederal ezberdinetatik orokorrean bultzatu behar den eginkizuna da.
4. Sindikatuak izaera egonkorra duen hausnarketarako egitura bat gorpuztu behar du, barrura eta kanpora pentsamendu eta eztabaiden joan etorria bermatua duen ideien iturri baten modukoa. Ipar Hegoa berrindartzeak bidera lezake planteamendu hau garatu izana.

2.6.- Hizkuntza normalkuntza sindikatuan.-

Sindikatuak erronka oso garrantzitsua du datozen lau urtetan euskalduntzeko gure barne prozesuari aurre egiteaz ari garenean.

Gai hau lantzeko izan dugun boluntarismoa gaingitu behar dugu eta LABen konpromezutan modu antolatu batean sakondu. Sindikatuko egiturek iraunkorki barneratu behar dute beraien lan planetan euskalduntze prozesua, sindikatuarena eta esparru soziolaboralarena.

2.7.- Lan metodoak.

Lana antolatzea oinarrizko gaia da sindikalgintza erasokorra, eskaintzazkoa bultzatzeko, sindikatura iristen zaizkigun arazoan arabera edota erakundeak artikulatzen dituen nazio kanpainen arabera aritzea ekiditeko

Militantzia eta lanerako denborak antolatu behar diren aldagaiak dira, erakunde guztian balioa galtzen duten azpierzailpenak gaingituaz.

Sindikatuako milintantziak, eta liberatuak bereziki, beren lan metodoak zehaztu behar dituzte lan plangintzak garatzea eta sail sindikalekin komunikazioa edukitzea ahalbideratu behar dutenak.

Sindikatuak baditu medio teknikoak gai politiko, ekonomiko zein sozialen inguruan sail sindikalekin eta langileekin komunikazio iraunkorra bideratzeko, informazio eta borroka ideologiko hartu eman hori antolatu behar delarik.

3.- Lurralde egitura.

3.1.- Hausnarketa orokorra.

1. Lurralde egiturak sindikatuak bultzatzen dituen dinamika guztiak integratu behar ditu, politiko zein sindikalak, eta dagokien behar bezalako plangintzekin. Beraz, izaera konfederalerako eztabaida eta ekarpenetarako esparrua da.

2. Eredu sindikal erasokorra, behar bezalako esku hartze soziopolitiko eta sindikatuaren bizitzan gure oinarri sozialaren parte hartzea eta komunikazio areagotzea ahalbidetuko duen antolakuntzazko eredu bultzatzearen helburuekin bat egingo duen osaketa eta eginkizunen definizioa bermatu behar dute lurralde egiturek, nazio izaerakoek.(Komite exekutiboa — Nazio Komitea) eta eskualdekoek (Eskualdeko Idazkaritza).

3.2.- Eskualdeko Idazkaritza.-

1. Eskualdeko Idazkaritza indartzea Biltzar Nagusi honetako helburu garrantzitsuenetarikoa da antolakuntzazko eredu osoa finkatu nahi baldin badugu.

2. Eskualdeko Idazkaritza erreferentzi politiko eta sindikal sendoa izan behar du, lurraldekoa (Herri Biltzarrak) sektoreko ardurekin egituratuko duen osakera batekin, eta bereziki, bere esku hartzea plangintzatzeko gaitasunarekin. Eskualdeko Idazkaritzak lan planak zehaztu behar ditu astero eta jarraipen eta kontrolezko dinamikak baloratu.

Funtzioak:

- Nazio mailatik eratorritako hizpide eta lan dinamikak garatu bere eremuan.
- Bere esku hartze esparruaren errealitate ekonomiko, sozial, laboral eta politikoaren arabera proposamen eta lan planak egin
- Ordezkaritza eta solaskidetza politiko, sozial eta instituzionala egikaritu eskualdean.
- Barne formazio plana ezartzea, eta komunikazio estrategia bat sail sindikalekin eta enpresekin oro har.
- Kolektiboki ekintza sindikal osoaren kontrol eta jarraipen mailak eduki sektoreko arduradunen bidez
- Eskualdeko Kontseilua dinamizatu.
- Herri Biltzarrak, zehar lerroko ekintza sindikaleko politikak (ABP, euskara) dinamizatu, baita sail sindikalekin komunikazioa ere.
- Lan bitartekoak antolatu egoitzetan, ekintzan sindikalean, aholkularitzan...
- Sindikatuaren ordezkaritza eta afiliazioa bultzatu.

Osaketa:

- Eskualdeko Idazkaria.
- Eskualdeko sektore arduradunak.
- Aholkularitza juridikoaren arduraduna.
- Herri Biltzarretako arduradunak.
- Sindikatuaren hedapenerako arduraduna.

Osaketa honek aldaketak eduki ditzake ezaugarri ekonomiko eta sozialen arabera (eskualderen batean ez du zentzurik ezarritako sektore guztien presentziak) edo bere antolakuntza bilakaeraren arabera. Eskualdeko Idazkaritzak bere egitura sendotuz joan behar du bestelako ardura batzuekin:

- Aukera Berdintasunerako Planaren arduraduna.
- Lan osasuna eta inguru giroaren arduraduna.
- Propaganda eta komunikazioaren arduraduna.
- Esku hartze eta jarraipen instituzionalerako arduraduna.

Enpresen aholkularitzan dabilzan sindikatuko ekonomistak beren militantzia garatzen duten Eskualdeko Idazkaritzetako kide izango dira.

Bilbo, Baiona-Lapurdi, Donostialdea, Iru erria eta Gasteiz-Lautadako Eskualdeko Idazkaritzak herrialde mailako ordezkariak politikoa eta instituzioekin harremanak bereganatuko dituzte.

3.3.- Eskualdeko Batzarra.

Funtzioak:

- Biltzar Nagusiko eta Zuzendaritza organoen ebazpenak Eskualdean betetzen direla zaindu.
- Eskualdeko Idazkaria berretsi Biltzar Nagusiaren proposamenaz.
- Nazio Biltzarrean Eskualdeko ordezkariak izango direnak hautatu.
- Eskualdeko urteroko lan planak ebaluatu eta onartu.
- Biltzar Nagusira doazenak hautatu.

Osakera:

Eskualde bakoitzeko afiliatuak.

3.4.- Eskualdeko Kontseilua.

Ezaugarriak

- Eztabaida, hausnarketa eta bereziki, sindikatuaren lan ildoak gauzatzeko egitura da.
- Hilabeteko maiztasuna izango du eta Eskualdeko Idazkaritzak dinamizatuko du.

Funtzioak

- Eskualdeko Idazkaritzak bere esparrurako definitzen dituen lan eta esku hartze planak ezagutu eta bere gestioan parte hartu.
- Erakundearen erabaki eta barne bizitzari buruzko informazio maila bat eduki.
- Eskualdeko Idazkaritzari begirako eztabaida eta ekarpenak garatu.
- Sail sindikalekin hartu eman iraunkor eta antolatua ahalbideratu hauek informazio orokor eta espezifikoa eduki dezaten.

Osakera

- Eskualdeko Idazkaritza.
- Dagokion esparruko 50 edo 100 langiletik gorako enpresa guztietako delegatu sindikalak edo sail sindikaleko arduradunak.
- Eskualdekoak ez diren ardurak dituzten liberatuak.
- Azpi sektore arduradunak, hiriburuetan eta esparru oso jakinetan bereziki (garbiketa, hostalaritza...)

3.5.- Sindikatuaren komarkalizazioa.

Eskualdeko kopurua: 17

- Lapurdi — Bexenafarroa — Zuberoa.
- Oarso — Bidasoa.
- Donostialdea.
- Tolosa — Goierri.
- Deba.
- Kosta — Urola.
- Durangaldea.
- Busturialdea.
- Bilbo.
- Ipar — Uribe — Txorierri.
- Ezker Aldea — Enkarterri.
- Aiara.
- Gasteiz — Lautada — Errioxa.
- Larraun — Sakana.
- Iru aldea.
- Lizarra — Erribera.

3.6.- Herri Biltzarra.

Herri Biltzarra egoteak herri edo zona batetako enpresetako sindikatuaren presentzia herriko jendartean islatzea ekarri behar du, eginkizun nagusienetakoa bere esparruan sindikatua hedatzea delarik — ekoizpen ehuna, osagai soziala eta lan egoeraren ezagupena oinarri duela - .

LABen antolakuntzazko ereduaren ezaugarriak askotan Herri Biltzarretarako zona eremua kontutan hartuz garamatza, marko lokalera mugatu gabe. Sindikatuak Herri Biltzarren definizio eta bultzadarako plan zehatza eduki beharko luke.

Herri Biltzarrak

Eskualdea

Ipar Euskal Herria
Oarso — Bidasoa.
Donostialdea.
Tolosa — Goierri.
Deba.
Kosta — Urola.
Durangaldea.
Busturialdea.
Bilbo.
Hego Uribe — Arratia
Ipar Uribe — Txorierri.
Ezker Aldea — Enkarterri.
Aiara.
Gasteiz — Lautada — Errioxa.
Iru aldea.
Larraun — Sakana.
Lizarra — Erribera.

Baiona* Zuberoa
Irun* Orereta-Pasaia* Oiartzun
Donostia* Hernani* Lasarte* Usurbil
Tolosa* Beasain-Ordizia* Legazpia-Urretxu
Eibar* Elgoibar* Arrasate* Bergara* Oinati
Zarautz-Kosta* Azpeitia-Urola
Durango* Elorrio* Ermua* Zornotza
Gernika* Ondarroa* Lekeitio* Bermeo
Bilbo
Basauri* Galdakao* Igorre-Arratia
Erandio-Getxo* Sondika-Zamudio
Barakaldo* Santurtzi* Zalla
Laudio* Amurrio* Ordu a
Gasteiz* Agurain* Oion-Errioxa
Iru ea* Elizondo* Bera-Lesaka* Atarrabia
Altsasu-Etxarri* Irurtzun-Larraun
Lizarra*Tafalla*Tutera*Biana-Ebro

Funtzioak

- Afiliatu eta enpresekin komunikazioa ezartzea bere esparruan.
- Enpresa txikiei begirako hurbiltze eta esku hartze sindikalerako plana ezartzea.
- Erakundearen dinamika konfederalak bultzatzea..
- Ekintza sindikaleko eta arlo ekonomiko eta sozialari dagozkion gaiak ezagutuko ditu, eta horretan erakundeak jarraipena egingo du.
- Bere esparruko mugimendu sozialarekin komunikazioa.

Osakera

- Herri Biltzarreko arduraduna.
- Eskualdeko sail sindikal garrantzitsuetako ordezkariak (delegatu sindikalak).
- Sindikatuaren hedapenerako arduraduna.

Herri Biltzarraren egitura zabalik egon beharko du edozein afiliatuk parte har dezan.

3.7.- Sail sindikalak.

Sail sindikalak dira erakundearen oinarrizko egiturak, lantokiz lantoki LABen esku hartzea, pentsamoldeak eta lan ildoak bideratu behar dituzten gunen antolatuak dira. Afiliatuak nortasun ikur orokorrak dituen proiektuaren partaide sentitu behar dira, baita lantoki edo sektoreko egoera zehatzen arabera ildo edo lanerako lehentasunak dituela ere.

Sail sindikal bakoitzak lantokiko langileei begirako lan mekanika jakina eta erreferentziazkoa izan behar du.

Oinarrizko esparrua den honetan parte hartzeko loturak eta jakin mina sortu arren, sail sindikalen dinamizazioan beharrekoak dira afiliatuekin komunikatzeko bitartekoak edukitzea. Delegazionismoari aurre egin behar zaio, informazio lanak eta borroka ideologikoa eginez etengabe.

Enpresetako barne gaietan edo erakunde osoarenak diren gai espezifikoetan etengabeko komunikazio eta elikadura lan horretarako sail sindikal bakoitzak bere arduraduna eduki behar du (delegatu sindikala). Arduradun hau eskualdeko kontseiluan hartuko du parte.

3.8.- Eskualdeko sektore egitura.

Biltzar Nagusi honetan planteatzen dugun eskualdeko egitura ereduaren zutabe nagusietako bat eskualdeko sektore arduradunak dira.

Eskualdeko sektore arduradunek sektorea bere eskualdean dinamizatzeaz gain (ekintza sindikala, negoziazio kolektiboa, hauteskundeak...), eskualdeko idazkaritzan sindikatuko bizitzan eta plan konfederaltan parte hartzen dute. Hau da, sektore arduradun hauek dira Eskualdeko Idazkaritzaren oinarria ekintza sindikala eta esku hartze sozio-politikoa antolatu eta dinamizatzeke.

Eskualdeko sektore arduradunak, esku hartze sindikala ebaluatu eta sektore politikan sakondu behar duten sektoreko nazio egituren parte dira.

Eskualdeko sektore arduradunek bere lurralde eremuko sail sindikalekin komunikazio sarea edota egitura egonkorra sortu behar dute, berauekin hartu emana eta dinamizazioa izango direlarik eginkizun nagusia.

3.9- Delekatuen batzarra.

Sektore edo lurraldeko delegatuen batzarra informaziorako helburuarekin (eginkizun hau Eskualdeko Kontseiluak egonkortuko badu ere) eta sindikatuak egokitzat jotzen dituen mobilizazio edo erantzunezko helburuen arabera erabili behar da.

Erakundearen barne dinamika Eskualdeko Idazkaritza, Eskualdeko Kontseilua, Herri Biltzarrak eta eskualde bakoitzeko sektore arduradunek komunikazio eta lanerako sortzen dituzten esparru eta egiturekin bideratuko da.

4.- Sektore egitura —

4.1.- Hausnarketa orokorrak

1. Sektore egiturak nazio dinamikan sartutako zuzendaritza bat du (sektoreko exekutiboa), eta gainontzeko egitura, garatu beharreko ekintza sindikal eta sozioekonomikoa definitzen eta lantzen.
2. Sektore egiturak bere eskuduntza esparruko esku hartze sindikal eta sozioekonomikoaren dinamizazioa bereganatzen du, sindikalgintza erasokor eta plangintzatua artikulatzeari bide emango dioten bitartekoak finkatuaz.
3. Lurraldeko egitura bada ere sindikatuaren jarduera orokorra bideratuko duena, sektore egiturak, Nazio Zuzendaritzan duen presentziarekin, berau osatu eta lagunduko du.
4. Erakundearen dinamika orokorrak eskualdetik bideratzen dira sail sindikaletara, eskualdeko sektore arduradunen ekarpenarekin.
5. Ekintza sindikala garatzeko zehaztu daitezkeen azpi sektoreko ardurak (unean unekoak batzutan) perfil integrala eduki behar dute, eskualdeko egituran sartuak edo elkarlotuak egon behar direlarik.

4.3.- Sektoreko komite exekutiboa

Funtzioak

- Nazio Komitean egin beharreko eztabaida eta hausnarketetan ekarpenak egitea..
- Sektoreko egitura garatu, baita bere lan eta ekintza sindikalerako gaitasuna ere.
- Sektoreko nazio egitura dinamizatu.
- Jarduera sindikal eta sozioekonomikoa kontrolatu eta ebaluatu sektorean.
- Sindikatuaren hedapenerako plana finkatu sektorean.

Osakera —

- Sektore Idazkaria (ordezkaritza, jarraipena eta ekintza sindikalaren dinamizazioa).

- Sektore antolakuntzako idazkaria (antolakuntzazko garapena eta erakundearen hedapena).
- Nazio izaerako azpi sektoretako arduradunak.

Salbuespenez, sektore batzuetan sektore exekutiboaren osakerarako oinarritzko egitura honetan moldaketarik suertatu daiteke.

4.3.- Sektoreko nazio komitea

Funtzioak

- Lan eta ekintza sindikalerako planak erabaki sektorean.
- Sektoreko eta azpi sektoretako jarduera ebaluatu.
- Sektoreko batzarrari Nazio Biltzarrerako sektoreko kideak proposatu.

Osakera

- Sektoreko exekutiboa.
- Eskualdeko sektore arduradunak.

Sektore publikoaren kasuan, nazio egituraren aholkularitza juridikoaren arduradunak egongo dira.

4.4.- Sektoreko Nazio batzarra

Funtzioak

- Biltzar Nagusiak hautatutako Sektoreko Idazkaria berretsi edo ez.
- Nazio Biltzarrean izango diren sektoreko kideak hautatu.
- Sektore esparruak definitu eta arduradunak hautatu.
- Lurralde egiturarekin batera, eskualdeko sektore arduradunak definitu eta zehaztu.
- Lan eta esku hartze ildoak ezarri Biltzar Nagusia eta gero.
- Lan eta esku hartze planak onartu eta ebaluatu urtero.

Osakera

- Sektoreko nazio egitura.
- Sektoreko delegatuak edo bestela afiliatuen ordezkariak.

4.5.- Azpi sektore egitura

Sektore bakoitzak baloratuko du zein azpi sektorek eduki behar duten antolakuntza edo koordinazio eta funtzionamendurako egitura iraunkor bat. Ezin dugu ekoizpen gune txikietan atomizatutako dinamika azpi sektorial bat bultzatu.

Azpi sektoreko arduradun bakoitzak, eredu sindikal erasokor eta plangintzatua garatu eta lantzeko aukerak emango dizkion egitura egonkorra jorratuko du. Azpisektore bakoitzeko berariazko ezaugarriek zehaztuko dute antolatu den gune hori.

Azpi sektoreko ezaugarri espezifiko bakoitzak definitu dituzte antolatutako gune horiek.

4.6.- Sektorre edo azpi sektoreko delegatuen batzarra

Sektore edo azpi sektoreko delegatuen batzarra ez da sindikatuko egitura egonkor bat izan behar (badaude besterik horretarako), ekintza sindikaleko beharren arabera erabili beharreko unean uneko bitartekoa izango delarik.

Sektore edo azpi sektoreko delegatuen batzarra sektoreko exekutibotik dinamizatuko da.

4.7.- Sektoreen birmoldaketa.

Bultzatu nahi dugun antolakuntzazko ereduak, eskualdeko egituren sektorearen integrazio handigoarekin, sektoreak birmoldatzea behar du Eskualdeko Idazkaritza guztietan pareko moduan gauzatzeko planteamendu hau. Hau da egiten den proposamena:

- Metala.
- Eraikuntza eta kimikak.
- Zerbitzuak: Merkataritza, hostalaritza, garbikuntza, finantzak eta seguroak.
- Administrazioa, osasungintza eta komunikabideak.
- Irakaskuntza.
- Garraioa, telekomunikazioak, itsasoa.

Horrelako birmoldaketa batek lurralde eta sektore egituren uztarketa egokia egiteko aukerak ematen dizkigu, eta giza bitartekoen redimensionamendua egitea sindikatuaren organigraman. Honek lan eskemen eta sektore batzuetako bitartekoetarako politiken birregokitzapen esanguratsua egitea ekarriko du.

5.- Eredu sindikal eta organizatibo baten mesedetan dagoen zuzendaritza

5.1.- Biltzar Nagusia

Sindikatuaren zuzendaritza organo gorena da.

Funtzioak:

- Sindikatuaren egintzen ildo nagusiak zehaztu eta onartu.
- Nazio Komitea hautatu.
- Estatutuak onartu edota aldatu.

Osaketa:

Biltzar Nagusia 500 pertsonen osatuko da. Ordezkarri hauek eskualdeko afiliatuen biltzarretan hautatuko dira, beti ere, eskualde bakoitzaren afiliatu kopuruaren arabera. Nazio Komitekideak, eskubide osoz, Biltzar Nagusiko kideak izango dira.

5.2.- Nazio Biltzarra.

Funtzioak

- Zuzendaritza organo gorena Biltzar Nagusien artean, Biltzar Nagusiaren funtzioak bereganatzen dituelarik Biltzar Nagusien arteko tartean.
- NB Biltzar Nagusiko ebazpenak betetzen direnaren bermatzailea da.
- NB dagokio Biltzar Nagusia deitzea.
- NB da garrantziaren arabera gainontzeko zuzendaritza egiturak gainditu eta Biltzar Nagusian landu ez diren gaiak tratatzeko organoa.
- NBk zehaztuko ditu urteko esku hartze ildoak eta protagonismo nagusia bereganatuko du hauen ebaluazioan. Era berean, erakundeak izan behar duen parte hartzearen izaera estrategikoa zein zeharkakoa zehaztu eta ebaluatu beharko ditu.
- NB da Greba Orokorrak eta nazio izaerako mobilizazioen deialdiak eta atxikimenduak erabakiko dituena.
- NB, Nazio Komitearen proposamenez, Komite Exekutiboko edozein kide hautatu edo kentzeko ahalmena du.
- Ez ohizko arrazoi edo beharrak medio, NBk Nazio Komiteko edo Komite Exekutiboko kideen kopurua handitu ditzake.

Osaketa: 150

- **Nazio Komitea: 39**
- **Nazio ardurak** — Nazio Komiteak hautatuko ditu Nazio Biltzarrean egon behar duten nazio arduradunak: **4**
- **Eskualdeak:** Eskualdeko bakoitzak hiru kide hautatuko ditu Nazio Biltzarrerako — $17 \times 3 = 51$
- **Sektoreak: 51** — Sektore bakoitzak zortzi pertsona hautatuko ditu, norberaren azpi sektoreen errealitatea kontutan hartuaz, $6 \times 4 = 24$. Gainontzekoak, 51 bitarte, sektoreko afiliazioaren arabera.
- **Idazkaritzak: 5**

Nazio Biltzar kidea izatea nominala da, eta osatzen duten pertsonak jakitun izan behar direla bertarako asistentzia bete beharrezkoa eta bestelako bilerekin alderatuz lehentasunezkoa dela. Bide honetan, indarrean dagoen barne funtzionamendurako araudia berresten da.

5.3.- Nazio Komitea

Funtzioak

- Goreneko organoek hartutako ebazpenak betetzeko direla bermatzea.
- Ohizko Nazio Biltzarra deitzea, edo ez ohizkoa kasuan kasu.
- Nazio Komiteko edozein kideren hautaketa eta kargu uztea proposatzea Nazio Biltzarrari.
- Nazio Biltzarrari proposatu Komite Exekutiboaren balizko handitzea, baita Nazio Komite berarena ere.
- Abagune politiko eta sozialari buruzko klabeen hausnarketak eta ekarpenak egitea, bai militantzia eta afiliazio osoari, baita euskal jendarteari ere.
- Politika ekonomiko, industrial eta sozialen jarraipena egitea.

- Sindikatuan urtero jorratu behar diren esku hartze sindikal eta soziopolitikoak proposatzea Nazio Biltzarrari. Era berean, hauen balantzeak egingo ditu Nazio Biltzarrean aurkeztu eta tratatzeko.
- Hezkuntza plana erabakitzea eta Aukera Berdintasunerako Plana eta Euskalduntze Plana kudeatzea.
- Sindikatuaren urteroko aurrekontuak onartzea, balantze eta urteko kontuen jarraipena eta balorazioa eginaz. Gardentasunean oinarritutako hizpidearekin, Nazio Komiteak baloratuko du zein den militantziari helarazi beharreko informazio maila eta zeintzuk bide egokiak horretarako.
- Egokitzen dituen batzorde eta lan taldeak sortzea.

Osaketa: 39

- **Exekutiboa: 10**
- **Eskualdeko Idazkariak: 17**
- **Sektoretako idazkariak: 6**
- **Ardura konfederalak: 6**
 - Nazioartekoa.
 - Idazkaritza juridikoa — informeak.
 - Diruzaintza —
 - Hezkuntza — fundazioa
 - Euskara —
 - Gazteriaren Idazkaritza —

5.4.- Komite exekutiboa

Sarrera

Komite Exekutiboa lan talde kohesionatua eta gaitasun politiko eta sindikala duena izan behar du, azken garaien eman den sindikal eta politikoaren arteko banaketa ekidinez.

Komite exekutiboak ekoizpen eta dinamizaziorako gaitasuna izan behar du, bai ekintza sindikalean, baita LHEE eta EGESan aurrera egiteko ekimen eta proposamenetan ere. Hauen arabera kokatu behar dira bertan ardurak.

Talde izaerak osatzen duten kideen esku zabaltasun handia behar du dedikazioan eta hartu emanetan. Hau da erakunde osoari begirako ekoizpen kolektiborako gaitasuna edukitzeko berme bakarra, eta klabea barne kohesioan aurrera egiteko.

Garatu nahi dugun zuzendaritza ereduak lurralde eta sektore egiturekin komunikazio iraunkorra izango duen Komite Exekutiboa behar du, arazo zehatzen aurrean presentzia eta ekarpen zuzeneko dinamikak izango dituen... laguntzeko asmoz.

Komite exekutiboak erakundearen berrikuntza orekatua bermatu behar du bere osakeran, non eta sindikatuko esparru guztietan militante gazteei bide ematea beharrezkoa den fase honetan.

Funtzioak

- Nazio Komitea dinamizatzea, horretarako gaitasun politiko eta sindikala bermatuaz.
- Goreneko organuetan hartutako erabaki eta oinarrizko norabideak praktikan jartzen direla bermatzea. Nazio Komitean onartutako ebazpenak gauzatzen direla ziurtatzea.
- Ekimen eta esku hartze ildoak proposatzea Nazio Komiteari.
- Izaera konfederalako harreman sindikalak gestionatu eta sindikatuaren ordezkari-tza bereganatu era guztietako instantzien aurrean.
- Lan plan eta dinamikak betetzen direla zaintzea, eta era berean, barne berrikuntza prozesua bultzatzea.
- Erakundearen bilakaera ekonomikoaren eta nazioarteko harremanen kontrol sistematikoa edukitzea.
- Ardura egokien presentzia planteatuko du gai espezifikoa tratatzeko.
- Lurralde eta sektore egiturekin komunikazio eta parte hartze jario iraunkorra ezartzea, enpresa eta sektoreko arazo zehatzetan bestelako ardurekin lan egiteko eta laguntzeko prest egonaz.

Osaketa — 10

Nota: Proposamen hau lan eta ardura eredu baten inguruko lehen hurbilpena da, datozen hilabeteetan neurtzen joan beharko garena.

- **Idakaritza orokorra:** Bozeramaletza, ordezkari-tza, barne komunikazioa, Zuzendaritzaren elikatze ideologikoa, Iraultzen —
- **Idazkari orokor orde:** Bozeramaletza, ordezkari-tza, exekutiboaren barne koordinazioa eta aktak, barne komunikazioa, Zuzendaritzaren elikatze ideologikoa —
- **Antolakuntza:** Antolakuntzazko garapena, baliabide eta azpiegiturak, staff ekonomikoa —
- Harreman sindikal eta soziopolitikoak, kanpaina konfederalak, hauteskunde sindikalak —
- Txosten ekonomiko eta soziolaboralak, politika fiskala, aurrekontuak eta behatokia.
- LHEE, enplegu politika, lan osasuna
- Etorkinak, politika soziala, pentsionistak, gizarte-foroak, globalizazioaren aurkako ekimena
- **Sektore arteko ekintza sindikala:** Industri sektorearen koordinazio eta ekintza sindikala (negoziatio kolektiboa barne), sektoreko politikak, kooperatibismoa.
- **Sektore arteko ekintza sindikala:** Sektore publikoa - komertzioa - ekintza sindikalaren koordinazioa (negoziatio kolektiboa barne)
- Zeharkako politikak (Aukera Berdinatasunerako Plana, gazteak, hizkuntza normalkuntza...)
- **EGES:** azpiegiturak, garatzeko eredu, ingurumena eta etxebizitza.

- Kanpo (propaganda., argitalpenak) eta barne (Web,..) komunikazioa)

5.5.- Ekintza sindikalerako batzordea.-

Funtzioak

- Ekintza sindikalaren jarraipena.
- Sektoreen lan planak ebaluatzea.
- Komite Exekutiboari eta Nazio Komiteari ekarpenak egitea ekintza sindikalean.

Osakera

- Sektore arteko ekintza sindikalaren arduradunak.
- Sektoreko idazkariak.
- Txosten juridikoen eta jarraipen instituzionalaren idazkaritza.
- Gazteriaren idazkaritza.

Ekintza sindikalerako batzordeak baloratuko du aztertu eta erantzun behar diren herrialdeko gaiet buruzko bilerak egitea eskualdeko arduradunekin.

5.6.- LHEE eta EGESen garapenerako batzordea

Funtzioak

- Ekintza sindikaleko arduradunen jarduera integratzeko, ekimenak aztertu eta eztabaidatzeko, komite exekutiboari eta *nazio komiteari* proposamenak aurkezteko... lan batzordea.
- LHEE eta EGESei buruzko lan plangintzen jarraipena.

Osakera

- Ekintza sindikaleko arduraduna (idazkaritza ekonomikoa...)
- LHEE, enplegu... arduraduna.
- Politika soziala, etorkinak... arduraduna.
- Aukera Berdintasunerako arduraduna.
- Lurralde egituraketa eta globalizazioaren arduraduna.
- Idazkari nagusi ordea.

5.7.- Ekintza sindikaleko kontseilua.

Funtzioak

- Aholkularitza eta hausnarketarako organoa, sei hilabetero deituko dena, Nazio Komitearen dinamizazio eta ardura pean.
- Lanerako formatoa mintegi ereduia izango da, eta Nazio Komiteak egoki ikusten dituen ekintzan sindikaleko gaiak jorratzeko balio izango du. Adibidez: negoziazio kolektiboaren balantzeak.

Osakera

- Nazio Komiteko ekintza sindikaleko ardurak.
- Eskualdeko sektore arduradunak.
- Sektore arduradunak.
- Azpi sektore arduradunak.

5.8.- Antolakuntza Batzordea

Erakundearen garapenak planifikatzeko eta ebaluatzeko batzorde baten beharra du. Honen funtzionamendua iraunkorra izango litzateke (hiru hilero bilduz).

Funtzioak

- Baliabide politika eta antolamenduaren garapena.
- Prestakuntza egitasmoak egiteko xedez guneak zein pertsonak zehaztuko dira.

Osakera

- Antolakuntzako arduraduna.
- Sektoreko idazkariak
- Eskualdeko idazkaria

6.- Idazkaritzak.

6.1.- Idazkaritza Tekniko Ekonomikoa

Funtzioak

- Maiztasunez txosten ekonomiko eta soziolaboralak egitea.
- Institutuzio ezberdinetako aurrekontuen azterketa eta ikerketa.
- Enpresa eta sektoreko aholkularitza tekniko-ekonomikoa.
- Behatokian eta hainbat instituzio organismoetan (CES...) ekarpena.

Osakera

- Idazkaritza Teknikoaren arduraduna.
- Idazkaritza tekniko-ekonomikoaren lurralde arduradunak.

6.2.- Emakume idazkaritza

Funtzioak

- Aukera Berdintasun Plana garatzea barne zein kanpo mailan.

Osakera

- Emakume Idazkaritzaren nazio arduraduna.
- ABParen arduradun teknikoa.
- ABParen arduradunak eskualdeetan.

6.3.- Idazkaritza juridikoa, txostenak

Funtzioak

- Sindikatuaren aholkularitza juridikoa koordinatu.
- Legediaren jarraipena egitea.
- Lege, erreforma, araudiei... buruzko txostenak egitea lurralde eta sektoreko egiturentzat.
- Trebakuntza arduradunari lagundu.

Osakera

- Idazkaritza Juridikoaren nazio arduraduna.
- Aholkularitza juridikoaren arduradunak eskualdeetan.

6.4.- Gazte Idazkaritza.

Funtzioak

- Sindikatuan gazteen ekarpena eta presentzia dinamizatu.
- Plan estrategikoa bultzatu eskualdeetan.

Osakera:

- Gazte idazkaritzako nazio arduradun bat.
- Nazio mailako taldea

6.5.- Lan osasuneko idazkaritza.

Funtzioak

- Gure ekintza sindikalean lan osasuna txertatzea dinamizatu.
- Informe, ikerketa, kanpainak... elaboratzea.
- Delegatuen prestakuntzarako bitartekoak ezartzea.
- Gure ekintza sindikalaren aholkularitza.

Osakera

- Komite Exekutiboan kokatutako nazio izaerako ardura (bestelako eginkizunekin bateragarria).
- Herrialdeko arduradunak.
- Lan osasunean eta ingurugiroan teknikariak.

6.6. - Hizkuntza normalkuntzarako idazkaritza

Funtzioak

- SINEUS egitasmo estrategikoa garatu sindikatuan eta gizarte eta laneko esparruan.

Osakera

- Idazkaritzako arduraduna eta Nazio Komiteko kidea
- SINEUSeko zuzendari teknikoa.
- Egitura zein esparruetako pertsonak.

7.- Esparru berriak eta antolakuntza ereduak: pentsionistak, autonomoak eta ekonomia soziala.

7.1.- Pentsionistak

7.2.- Ekonomia soziala

Ekonomia-sozialean diharduten langileek eta delako enpresa hauek nor bere sektorean antolatu beharko dute.

7.3.- Autonomoak

8.- Batzorde bereziak

8.1.- Berme-batzordea.

8.2.- Finantza batzordea